

EH Bilduren hitzarmen proposamena

Zarauzko trenbidea lurperatzeko lanketarako konpromiso hitzarmena:

Zarauzko EAJ-PNV eta Zarauzko EH Bildu bat datoz Zarauzko herria bi zatitan banatzen duen trenbidea lurperatzearen helburuarekin. Hori horrela izanik, elkarlan hitzarmen hau sinatzen dute honako konpromisoak hartuz:

1. Zarauzko trenbidea lurperatzea herriarentzat proiektu estrategikoa da. Horregatik, helburu hori lortzeko pausuak emateko konpromiso argia dugu, Udaleko Gobernuan zein alderdi dagoen begiratu gabe.
2. ETSri trena lurperatzeko azterlana 2023rako bukatzeko eskaera egingo zaio eta horretarako beharrezko den diru partida 2022ko aurrekontuetan zehaztuko da.
3. Lanketa honetan ETSrekin egin beharreko bilera eta harremanetan bi alderdien presentzia bermatuko da, alderdiak udal gobernuan edo oposizioan dauden begiratu gabe.
4. Trenaren lurperatzeari jarraipena egingo dion herritarren foro bat sortuko da, bertan kezkek eta proposamenak azaldu, landu eta eztabaidatu daitezten.
5. Trenaren lurperatzearen inguruko azken erabakia hartu aurretik herritarrei hitza emango zaie galdeketa baten bitartez.